

**NABARMENTZEN ARI DIREN SEKTOREAK. KULTURAREKIN ZERIKUSIA  
DUTENAK.  
2. LAN AGIRIA**

---

**NABARMENTZEN ARI DIREN SEKTOREAK.  
KULTURAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK.  
LAN TALDEA**

**2. LAN AGIRIA:**

**1. BILERA  
2002KO EKAINA**

## **1. KULTURA-INDUSTRIA: EKOIZPEN ARTISTIKOA**

### **1.1. EREDU IDEIAK**

#### ***a) Kultur sektorea: hedatzen ari den eta hazkunde potentzial handia duen aktibitatea.***

Elkartasun eta adierazpen modu berriak garatzean, kulturak zeregin garrantzitsua du gizarte-bazterketari aurre egiteko orduan. Kultura eta kultura-industriaren sektore ezberdinak faktore sozial eta ekonomiko garrantzitsuak dira. Kulturak bere baitan biltzen ditu ondarea, literatura, prentsa, musika, arte-eszenikoak, ikus-entzunezko komunikabideak eta aktibitate soziokulturalak.

Kulturara heltzeko bideak hobetzeko eta kultur ekoizpena eta zabalkundea bultzatzeko estrategiak ezinbestekoak dira garapen sozial eta ekonomikorako. Kultur eskaria baldintzatzen dute hainbat faktore soziologiko eta ekonomikorak. Horien artean, honakoak aipa daitezke:

Zerbitzu-sektorearen geroz eta garrantzi handiagoa.

Bizitza-itxaropen handiagoa.

Ikasketa-maila handiagoa.

Denbora libre gehiago.

Bizitza kulturean parte hartzeko moduen ugaritasuna.

Kultura-lanpostuen hazkundea garrantzitsua izan da azken hamar urteotan Europako herrialde ezberdinetan:

Espainia: kultura-lanpostuak %24 hazi ziren 1987 eta 1994 artean.

Frantzia: %36,9ko hazkundea 1982 eta 1990 artean. Hots, garai berdinean lan-populazioa hazi zena baino hamar aldiz gehiago.

Erresuma Batua: %34ko hazkundera, 1981 eta 1991 artean kultura-lanpostua zeukaten pertsona guztientzat; %14ko hazkundera, kultur sektoreko enpleguetan, lan-populazioaren hazkundera ia hutsa izan zen bitartean.

Alemania: artisten eta produkzio-etxeen enplegua %23 hazi zen 1980 eta 1994 artean. Rin iparraldea-Westfalia eskualdean, izugarritzko hazkundera izan zen kultur enpresetan eta kultura-enpleguetan (enplegua %161 handitu zen 1980 eta 1992 artean).

***b) Kultur aktibitatea bizkortzeko inbertsio premiak.***

Garbi dago ekonomian badela txoko bat arte-enpresentzat eta kultura-enpresentzat, eta sektore horren hazkundera etengabea dela lan eskaintzari begira. Dena den, prozesua bizkortzeko eta hirietako kultur baliabide gabezia ezabatzen inbertsio handia egiten ez bada, urte gutxitan defizita izango dugu komunikazioaren gizaratean, eta kanpoko ideien eta kulturen hartzaile huts, kultura-lantegi indartsuagoen morroi bilakatuko gara.

***c) Hiriko kultur aktibitatearen definizio/testuingurua: kultura-industria versus sortze-industria.***

Gaur egun asko eztabaidatzen da kultura-industrien eta sortze-industrien definizioaren inguruan, eta horren gainean hausnarketa egiteko premia aipatzen da, beti ere eremu lokala, eskualdekoa edo nazionala gogoan izanda.

Bost kultur sektoreen artean, kultura-industriak dira talderik indartsuena, eta enpresa artistikoak altxatzeko abiapuntua. Osotasunean, sortze-gune berriak bultzatu behar dituzte lurraldearen identitate zeinu bezala, eta, ondorioz, hiriaren ageriko adierazgarri bezala (Adb.: Modernismoa Bartzelonarekin; Guggenheim Bilborekin; errodiak eta zinema New Yorkekin; antzerkia eta musika-kontzertuak Londresekin; Sundance zinema jaialdi independenteekin). Kultura-industria indartsuago hauetan bada dirua eta enplegua sortzeko nahia. Sortze-industriek, aldiz, sormen-unitateak eta hazkuntza-perspektibak sortzea dute helburu, sortzen diren lurraldeetan identitate berriak indartzen dituztelarik.

***d) Sortze-industrien garrantzia hiri txiki eta ertainetarako.***

Kultura-industriek tamaina txikia duten hirietan, nekez hitz egiten dute kultura-industriez. Eta horrek kezka eragiten du, kultur aktibitatearen, lekuan lekuko ekonomiaren eta lekuan lekuko identitatearen sortzaile baitira sortze-industriak. Zentzu honetan, eremu lokaleko kultura-industriek jakin egin behar dute sorkuntza-proposamenak eta horien eszenaratzea antolatzen, identitate-zeinua indartzeko eta enpleguan nahiz ekonomian hazteko. Hiri txikientzat eta ertainentzat garrantzitsua da sortze-unitateak bultzatzea, ekonomia berria sortzeko elementu diren aldetik.

***e) Produktu orokorra lekuan lekuko produktuarekiko: kasu zehatz bakoitzean beren abantailak eta desabantailak aztertzekeo premia.***

Lokalaren eta orokorraren arteko arazoa agerian dago, eta kalterako izan daiteke berrikuntza eta ekimen-gaitasunik ez duten herrietentzat, atzean gera daitezkeelako. Hiriaren berezko idiosinkrasia sortzearearekin aurrez aurre, kultura-industriak frankizien edo parke tematikoen pareko azal daitezke, eta hiriak izan dezake bertakoa ez den frankizia moduko bat onartzeko joera; hori kaltegarria izan daiteke, kanpoko kultur tamaina eman diezaiiokeelako eta lekuko ekoizle txikiei kalte egin diezaikeelako. Kultura-industria lokalek nazioarteko industriren ezarpena erakarri behar dute, baina izaera lokala ahaztu gabe, eta, horrela, beharrezkoa da aurretik azterketa ekonomiko bat egitea, egitasmoak luzera kultura-sare lokala desegin dezakeen ala ez jakiteko.

Parke tematiko unibertsal bihurtu nahi lukete hainbat hirik, hiria kanporatzeko eta ekonomikoki onurak izateko helburuarekin. Horrek, dena den, hiriaren birsorkuntzarako, gizarte zibilerako arrisku garrantzitsuak dakartza. Ulertu behar dugu kulturak ekonomia iturri berriak sortzen dituela eta lanpostu gordetegi berriak irekitzen dituela; horregatik, norbere lurraldean eragin handia izan behar du, baina baita mundu mailako merkatuan ere.

Europak eta Europako hiriek ez dute hartu behar AEBetako denbora-pasarako kultura-industrien norabide bera. Kalterako litzateke parke tematikoz jositako Europa diseinatzea ("Paris eta Disney lantegia", "Florentzia eta fast food turismoa" eta Amsterdam "Freak" parke tematiko bezala), eta Europa masa-kulturaren eta ekonomiaren artean egongo litzatekeen patchwork antzerakoa bilakatzea.

***f) Hiriko kultur aktibitatearen eredia zehazteko hausnarketa sakon baten premia.***

Garbi izan behar dugu zein norabide hartu eta nondik jo behar dugun, eta jarraitu nahi dugun ereduarekin bat datorren kulturaren gainean egin behar dugu hausnarketa. Hala, kultura-industriek eta arte-industriek hiriarekin duten harremanean, hainbat gaik kezkatu beharko liguke:

Bertako ekoizle txikien galera.

Merkatu falta gure arte-talentuentzat.

Funtsezko protagonismo soziokulturala izan duten amateurren desagerpena.

Kultura-enpleguen ezegonkortasuna. Bai enplegu artistikoena bai gestio-lanpostuena.

Bertako inbertsioa falta da berezko identitate kulturala duten lurraldeak parke tematiko bilaka ez daitezen.

Hiriko kultur produktuen adierazgarri den hiriaren zeinua definitu gabe izatea.

Hiriaren eta sortzaileen arteko harreman gabezia.

Era honetan, gaur egun bi faktore ari dira galtzen hirietan: batetik, produktuaren, tinkatuta dagoen artistaren eta lurraldearen arteko gune bitartekaria falta da, eta ekimen gaitasun handia duten eta sorkuntza eta ideia berriak dituzten erdi-profesional edo amateurrik ez izateak alternatiba berririk gabe utz dezake sortze-industria. Eta, horregatik, sortze-industrietz hitz egiten dugunean, artean ere ez da ikusten horien normalizazioa (ezegonkortasuna ematen da enpleguan). Testuinguru honetan, hausnarketarako bi gai aipatzen dira:

Kulturari emanak dauden pertsonen, produktu baten alde apostu egiten duten eta nora jo ez dakiten ekintzaileen lan-ezgonkortasun.

Hiriko kultur gunea edo hiriaren kultur oinarria izan liteekena aurkitu eta hiriak adierazgarri duen horretan edo kalitatean parte hartzeko premia. Askotan, dikotomia handia ematen da turismo sailetan, hiria museoen espazio bailitzan aurkezten dutelako, kultur aktibitateari jaramonik egin gabe, nahiz eta elementu garrantzitsua izan. Adibide bezala aipatu ohi da Florentziaren kasua: uste zuten turismo kulturalaren oinarri izan zitekeela turismoa berez, baina hilda dagoen hiria da (zuen pisu historiko-artistikoa galdu du eta janari azkarreko hiri bilakatu da; jendeak, iritsi, argazkiak atera, bazkaldu eta hanka egiten du, eta horixe bera gerta dakieke Europako hiri ertain gehienei). Kontrara, adibide onak ere aipa daitezke; kultur biziraupenerako jarduera berrien plan estrategikoak egin dira eta horietan oinarrizten da lurraldearen identitatea; kultur proposamen/industria sortzaileetatik abiatuta birsortu dira hiriak (Lille, Sheffield, Cardiff, Manchester, Dublin...).

***g) Hiriko kultur aktibitateen garapena helburu duten ekintzen gaineko oinarrizko ideia batzuk.***

Kultura hiriaren birsortzailea denez, babes handiagoa eman behar zaio, ekintzaileak haziko diren egitura edo espazioak edukitzeko. Era berean, kultura lagungarria gertatzen da turismoa, gastronomia eta antzerakoak merkaturatzeko orduan. Hori guztia dela-eta, honako helburua duten jarduera neurriak hartzea komeni da:

Kulturari eta hurbiltze-ekonomiari babesa ematea, hiria birsortzeko modua den aldetik.

Izebergaren puntatzat hartzea kultura.

Enpresa txiki eta ertainen ekonomia arina, eta sortze-eduki berriak eta ukiezinak bultzatzeko gaitasuna duen ekonomia elikatzea.

Gizartearen jasangarritasuna indartzea, arrazismoaren aurkako ordezkari demokratikotzat hartuta kultura.

Haurren kultur eskubideen alde eta sorkuntzara heltzeko moduen alde egitea.

Lan aukera berriak sortzea kultur ezegonkortasunaren aurka.

Hiriaren kultur zeinua diseinatzea, bere lurraldeari, uki daitezkeen eta uki ezin diren sortzaileei erreferentzia eginez. Eta sortzaileak izan daitezela ekonomia eta enplegua sortzeko eragile.

Ekintzen arloari dagokionean, hausnarketarako hiru gai aipatzen dituzte bereziki:

Lehenengo eta behin, gizarte jasangarriaren gaia. Gaur egungo testuinguruan, hirietako oinarri zibila erabat ari da aldatzen (komunitatetik kanpoko langileen sarrera...), eta horregatik da garrantzitsua ikustea horri errentagarritasun soziala emateko modu bat dela orain arte kanpoaldean mugitzen ziren kulturak barneratzea.

Hiri txiki eta ertain batean kultura kotsumoaren premia izan dadin, hiria nola prestatu behar den aipatzen da. Kultur sorkuntzako prozesuetan era aktiboagoan barneratu behar dira haurrak eta gazteria, etorkizunean ekintzaileak izan daitezen daudeneko lurraldean.

Sortze-industriak tresna baliagarriak dira hiria birsortzeko politiken barruan. Hainbatek defendatzen du hiriak eta hirietako planak ez direla beti birgaitze-urbanistikotik abiatuta jarri behar martxan, baizik eta garrantzitsua dela urbanismoa egokitu ahal izatea punta-puntako teknologiei, kultura-industriari eta ekonomia berriaren beste zerbitzu batzuri, hots komunikazioaren teknologia berriei. Kultura-industriek formula berriak ezarri behar dituzte, hiritarrei eskainitako zerbitzuei eta kultur negozioari neurriak ezartzeko, beti ere kontuan hartuta errentagarritasun ekonomikoaren alderdi bat dela ongizatea (ez bada kontuan hartzen, baliabide ekonomikoen gabeziak mugatu egingo ditu garapen aukerak).

Kultura-industriak haziko dira baldin eta sektore pribatuak aintzindaritza hartzen badu, sektore publikoaren babesarekin. Sektore publikoak astindu eta babestu egin dezake, baina, hortik aurrera, sektore pribatua da garrantzitsua; sektore pribatuak hartu behar du ekimena, inbertsioa bere emaitzetara itzuli dadin ahalaginduz.

Norabide bakarrean bildu behar dira hiriko sortze-ahalegin guztiak. Hiriek espazio edo zeinu bereizgarri bat sortu behar dute, lurraldean sortzen den guztiaren adierazgarri izango dena. Adibide bat jartzen dute: Donostiako Zinemaldia hiriaren plataforma garrantzitsua dela aipatzen dute, eta hiriko kultur sarea bultzatzeko gisa horrelako egitasmo eta aktibitateei zein neurritan ateratzen zaien probetxua komentatzen dute; hots, proiektu berriak sortzeko gertakizun horiei probetxua nola atera dakiekeen aztertu behar da. Zeinua edo adierazgarria, hiriko sortze-sistema azalertzeko modu bat da, eta gehiegizko produktu homologatuaren aurrean berezko idiosinkrasia emateko modua. Sortze-ekosistema berriro berpiztea da, eta iraunarazteko beharrezkoak diren parametroak ematea.

Parametro berriak sortzeko era bakarra lurraldearekin identifikatzeko moduko identitate-produktuak sortzea da. Sortze-ekosistemaren araberakoa izan beharko du zeinuak, edukiak sortzeko espazio bat bultzatzeko asmoz. Gai honen inguruan, bi hausnarketa planteatzen dira:

Hiriaren dinamikatik isolatuta dauden sortzaileak badira hirietan. Askotan nekez atzematen ditu Administrazioak. Programa izarrek eta enpresen haztegiek harremanetan egon behar dute, eta programa batek zerbait garrantzitsua badauka, hiriaren errealitatera lotu beharko dugu.

Hiriaren pluraltasuna ordezkatu behar du kulturak; bai kultur aktibitatea bai kultur aktibitatea ez dena (hau garrantzitsua da laguntzaren garaian). Kultura-industrien arrakasta bermatzeko, lotuta egon behar dute garapen ekonomikoaren, turistikoaren, etab.-en sektoreak eta kulturak, inbertsioak aurkitzeko eta ekonomia berriak sortzeko. Zentzu honetan, administrazio-sailen arteko lankidetzaren beharra planteatzen da (kultura saila, ekonomia edota turismo-sustapenerako sailarekin...).

### **1.1.2. Eztabaidagaiak**

Kultura-industrien eta sortze-industrien arteko bereizketa aproposa da batzuetan, baina arriskutsua ere izan daiteke. Bereizketak balioa duela aitortu arren, arriskuak ere badituela jakin behar dugu. Kultura-industriaren aurrean, kultur sorkuntza defendatzea planteatu dezake norbaitek, baina, aldi berean, industria egituratu batek dakartzan onurak desiragarri gertatzen dira.

Kultura-industriaren eta sortze-industriaren artean ezberdintasun handirik ez dagoela dioenik ere bada. Izan ere, biak hasten dira sortzailea baina txikia den zerbaitetik eta azkenean industria bilakatzera iristen dira. Sortze-industria kultura-industriaren parte da, eta alderantziz. Industria osagarrien garrantzia azpimarratzen da; nahiz eta gune-gogorrera iritsi ez, horiek ere baliogarriak dira, askotan bideragarriagoa baita inguruko aktibitateetatik dirua kapitalizatzea eta sortzea, kultur erdigunetik baino, azken honek arrisku handiagoak baititu eta egitura gehiago behar baititu.

Akaso, aurretik definitu beharko litzateke kultura-industria zer den. Horrek ahalbidetuko liguke kultura-industriatzat har daitekeen mundua bere barruan hartuko lukeen cluster edo erakunde moduko bat sortzea.

Lan-ezgonkortasuna kontzeptuari dagokionez, kultura aparteko mundu bat dela aipatzen da; eta aparteko mundu horretan agian ezin dela ezgonkortasunaz hitz egin, sortze-aktibitateei lotutako ordutegi malgutasunaz baizik; hots, ezin da kulturaren burokratizazioaz hitz egin. Arazoa da ez direla sortzen proiektuen segida bermatuko duten produkzio-egitura ganorazkoak eta kontzientek.

Lan-ezgonkortasuna, kultur munduan, enplegutik bizitzeko aukera bezala planteatzen da. Ezin da industria bilakatu ez bada homologazio profesionalik. Kultur sektorea lan-mundura barneratzean egiten den hausnarketa da.

Amateurismoaren premia azpimarratzen da, baita kultura-industriarako oinarri nahikoa sortzeko premia ere. EAEn antzerki-talde profesional dezente daude, eta talde amateur gutxi (Katalunian kontrakoa gertatzen da), eta, horren ondorioz publikoa eskasa da (amateurak, gero, antzerkira doaz). Horrek produkzio-egitura indartsuak sortzea dakar eta, halaber, zabalkunde politikak, merkatuak zabaltzea. Azpiegiturak baditu eta gauzak egin ditzake Donostiak, zabalkundearekin.

“Made in Donosita-ri” dagokionean, produktu orokorraren eta lokalaren arteko norgehiagoka (identitate-zeinua globalizazioaren aurrean) arriskutsua izan daiteke. Menpekotasuna existitzen da. Produktu homogeneousak daude, eta produktu oso lokalak. Baina edukien munduan giltzarria erdibidean dago: lekuko merkatutik kanpo merkatua duten elementuak, baina aldi berean alderdi lokalak bereganatzeko gaitasuna dutenak. Lokalaren eta orokorraren arteko menpekotasunean definitu behar da identitate-zeinua (ez, “-ren aurrean”). Enpresa sortzaileek formatu berriak eta audientzia berriak sortu behar dituzte.

Hausnarketarako beste gai bat: kultura-industriak sorrarazten dituen dinamismoa eta hiriaren eskala (tamaina) zein neurritan dauden erlazionatuta. Donostiaren arazoa tamaina da; populazio-kontingente apala du. Zinema, jazza eta bestelako plataforma garrantzitsu batzuk badira Donostian, baina plataforma autistik (lorpen iragankorrak dituzte hiriko kultura sarean) sortzea da hedatu nahi duten hiriek duten arrisku handia. Eskala efektuak, oinarri demografikorik ez izateak, plataforma hauen kontra jokatzeko du, nahiz eta kultur defizitrik ez duten. Pentsatzen da bi alderdi hauen artean ez dagoela konexiorik, ez dagoela sinergiarik, eta horregatik ez dela lortzen Donostiaren zeinurik (gastronomian lortu dena).

Jarrera ezberdinak daude Plan Estrategikoaren inguruan. Batetik, kulturak hiriari zer ekar dakioken eztabaidatzeko premia planteatzen da, eta, horretarako, egungo egoeraren (alde indartsuak eta ahulak) azterketa kritiko bat egin eta nora joan nahi den zehaztu behar dela diote (baina ezin dira kasu eta arazo

partikularrak aztertu); eta, sorkuntza garestiegia agertzen bada, bigarren plano batean uzteko bedurrik ez dela izan behar aurreratzen dute. Bestaldetik, kasu zehatzak atzertzeko beharra aipatzen da; eta partikularren eta erakundeen arteko kohesio handiagoa beharko litzatekela, bien artean sostengatzen baitituzte proiektuak; eta, halaber, proiektu hauek, uztartuta, politika orokorrari aurre egin beharko lioketela.

Sortzaile bakoitzak bere nortasuna duela eta kasu bakoita ezberdina dela diote, baina, era berean, sentsibilitate ezberdinak barneratuko dituen jarduera eredu orokorrak ezarri daitezkeela gehitzen dute. Ildo honetatik, hausnarketa-gai ardatza aipatzen da berriro ere: identitatea, hiriaren adierazgarria. Donostiaren identitateaz hausnartu behar da; baliagarria eta salgarria ote den.

Adierazgarria ez da sinbolo huts bat. Zerbait gehiago da. Zerk identifikatzen gaitu?, sortzaile edo kontsumitzaile gara?. Bizileku onaren identitatea du Donostiak (Donostiak uzten dizuna paisaia eta oroitzapen erromantikoa dira; ondo funtzionatzen duen cliché-a da hori eta jarraipena eman behar zaio). Eliteko kultur produktua kontsumitzen da, horrelako kontsumoa populazioaren %10ek bakarrik egiten duen arren. Bada sorkuntza, baina ez dago sorkuntza-industriarik; sorkuntza-gaitasuna (horretan ondo gaude) eta sorkuntza-industria lotuko dituen zubia falta zaigu. Eskariaren, publikoaren arazoa ere hor dago. Ez dago unibertsitate-bizitarik; ez dago campusik, nahiz eta ikasle kopurua handia izan. Kulturatik, zer kontsumitzen dute?, zer ekoizten dute?.

Demografikoki murrizta den merkatuan bizi garenez, proposamen askok ez lukete bideragarritasun ekonomikorik izango baldin eta kanpora zabaltzen ez badira. Era honetan, jarraitu beharreko ildoak definitu beharra planteatzen da; eta orain oso txikia den kultura eskaria handitzeko, erresorteak aktibatu beharra dagoela esaten da. Honi dagokionez, oso garrantzitsua da jende gaztea kultura mundura barneratzea; hortaz, hezkuntza (kulturan heztea) oso garrantzitsua da. Populazioaren segmentu hori erakarriko duten eduki berriak irekitzea planteatzen da.

Garapen ekonomikoa sortu nahian Administrazioak ematen dituen laguntzen inguruan, honakoa aztertu behar da: zertan garen onak; elementu gakoak definitu eta bultzatzea. Etorkizuneko ideiak babestu beharko lirateke, jarduera berriak bultzatu, antzerki-taldeak sustatu, kultur mugimendua sortu hirian, jendea kultura jasotzera etor dadin.

Korrespontsabilitatearen ikuspuntutik fokatu behar da plan estrategikoa. Bai sektore pribatuak, kultura-industrian inbertitzeko orduan; bai sektore publikotik, proiektuak babestu edota diruz-laguntzeko orduan. Enpresa gordetegiak, edukien sorrera... ez ditu Kultura sailak bakarrik eraman behar aurrera, sailen arteko lankidetzak behar da. Sorkuntza handia dago, baina ez dago managerrik ez ekoizlerik, ez inbertituko duen jenderik; hortaz, arriskatzeko prest leudekeen enpresaburu gordetegi bat ere beharrezkoa da.

EAEn, orohar, hipoteka ikaragarria daukagu sorkuntzatik industriara igarotzeko aukeran; sortze-industriaren finantzazioaren arazoa handia da; ez dago finantzazio-arriskurik ez arrisku-kapitalik (kapitala badago, baina ez dago arrisku mentaliterik), eta enpresaburuek, orohar, ez dute kultura-industriak sortzeko ikuspunturik. Kultur aktibitateak birbaloratzeko kanpainak egitea proposatzen da, baita kultura-industria sortzeko laguntzak errebindikatzea ere.

Ekonomia-garapeneko sailek kultura-industriaren garapenaz arduratzea garrantzitsua da, kultura-industriak ekonomia-aktibitatea eta identitate pautak sortzen baititu. Baina azpiegitura-arazo garrantzitsuak daude, formazio-arazoak, eta arazoa da alderdi ekonomikotik ez begiratzea ez babesa ez kultu-inbertsioa. Mezenasgo lege egoki bat faltan dute (gainera, ez da existitzen mezenasgo tradizioa, ez da harrapatzen zein den bere egikizuna, eta fundazioak irudi korporatiborako eta marketinerako erabiltzen dira: mentalitate arazo bat da). Garrantzitsua da ikustaraztea kulturaren eremuan ahalegin ekonomikoak egiteko hirian dagoen premia.

Maila lokalean arrisku-kapitala sortzeko hainbat irtenbide mahairatzen dira; esate baterako, Mallorkan, Frantzian, etab. ezarri dute ekotasa, edo loteria Ingalaterran (finantzazio hori erabili zuten kultura-industria berreskuratzeko). Interesgarria litzateke arteen kontseilu bat sortzea, zeinetan esku hartuko duen sektore publikoak eta pribatuak, kulturaren gestiorako proposamenak eztabaidatzeko, beste motore bat gehiago delako hiriaren barruan; kultura saila kontseilu horrek aholkatuko luke eta kontseiluan sektore guztiek hartuko lukete parte.

Donostiari egiten zaion salaketetako bat honakoa da: gaueko hamarretatik aurrera ez dagoela zer eginik. Era guztietako kultur aktibitateak aterbetuko dituen, aktibitate artistikoak bultzatuko dituen eta hiriarentzat aisia aukerak sortuko dituen lokal bat sor liteke. Era berean, bigarren Aste Nagusi bat egin ahalko litzateke garai turistikotik kanpo, hirian den garrantzitsuena bilduz, eta hiriaren zeinua emanaz.

Antzerkian bada jarraipena Gipuzkoan eta batez ere Donostian. Udan antzerki jaialdi bat antolatzeko aukera badago, adibidez, existitzen diren azpiegiturei probetxua ateratzen bazaie. Baina kontziente izan behar dugu gure errealitatea txikia dela, egitura berriak sortzeko merkatu berriak behar direla, eta administrazio publikotik enpresei laguntza eman behar zaiela merkatu berriak ireki ditzaten.

Hainbat neurri Donostiaren izaerari begira hartu beharko dira. Baina hiri-bokazioko neurriak ere hartu beharko dira. Lurralde izaera baino izaera funtzional handiagoa duen eremu bat izan behar da.

### **1.1.3. Elementu estrategikoen identifikazioa**

Azkenik, eztabaidan egindako ekarpenen osagarritzat, hirirako proposamen konkretuak egin ditzatela eta ideia horiek Planean nola ezarriko lituzketeen azaltzeko eskatu zitzaizen tailerreko parte-hartzaileei. Ondoren laburbiltzen dira alderdi garrantzitsuenak:

Beste ezer baino lehen, Kulturak Donostian bizi duen egoeraren sakoneko diagnosi bat egiteko premia aipatzen da. Aipatu diagnosiak, ahal dela, norbanakoen pertzepzio subjektiboak ekidin beharko lituzke eta egoera erreala atzeman beharko luke.

Diagnosi horretan aztertu beharko dira eztabaidan atera diren alderdi garrantzitsu guztiak, kultura-industriaren definizioa, alderdi lokalaren eta orokorraren arteko erlazioa, jarraitu beharreko ereduaren definizioa, hiriaren identitatea edo zeinua, azpiegiturak, lan-prekarietatea, kultura eskaria, arrisku-kapitala, sailen arteko lankidetzak eta sektore publikoaren eta pribatuaren artekoa, mezenasgoa, etab.

Beharrezkoa da kultur aktibitate guztiak koordinatzea bata besteari itzala egin ez diezaion; kultur agenda da sortzea existitzen diren azpiegiturei probetxua ateraz. Udal-aktibitatea eta agente pribatuena koordinatzea, kultur aktibitateak bultzatuz eta koordinatuz.

Bertako erabiltzailea, bere kontsumo-ohiturak aintzat hartzea; lantzamendu arrapala bat izatea, etorkizuneko bokazioak elikatzea.

Jai-kultura lokal bat sortzea, gauetan hiriak duen hutsunea betetzeko. Kultur aktibitateen Aste Nagusi alternatiboa antolatzea. Hiriaren zeinua sortzea erakundeetatik; guztion adierazgarria izango dena, eta ekartzeko zerbait duen guztiak irudi hori erabiltzeko aukera izatea.

Mapa turistiko-kulturala definitu behar da. Erlazionatuta dauden alderdiak dira, eta mapa horretan nabarmendu behar dira zein elementuk sortzen dituzten baliabideak, etorkizunean bultzatu ahal izateko; eta baliabide horiek sortze-kulturarentzat onuragarri izan daitezen lortzeko mekanismoak ezarri behar dira.

Kultura-industria definitu eta nabarmendu, baita turismoarekin duen erlazioa ere (erakargarritasun turistikoan oinarrituta sorteen dira baliabideak). Beharrezkoa da norbaitek dirua jartzea, baina baita dirua sortzen duten aktibitateak ere).

**NABARMENTZEN ARI DIREN SEKTOREAK.**  
**KULTURAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK.**  
**2. LAN AGIRIA**

---

Donostiako plataforma garrantzitsuak aztertzea (zinema, jazz), sektore ezberdinen arteko harremanak (hotelak, garraioak...) ikusiz. Behin aztertuta zer dakarren eta nori, beste ekarpen batzuk izateko baliabideak ezar daitezke.

Hausnarketa kritikoa egin behar da, ongizatea sortzen duen kultura eta hiriaren kontuak identifikatuta; zein aktibitatek duen kontu onuragarria hiriarentzat. Hiriko aktibitate adierazgarriei dagokienez, horien kudeatzaileei ikustarazi behar zaie kontua ez dela ekonomia-balantze zehatz bat egitea; ikustarazi behar zaie balio bat dutela eskuartean eta hiri osoaren emaitzen-kontua hobetzeko modua aurkitu behar dela.

Udalaren eskumenetatik kanpo gera daitekeen arren, enpresak barneratuko dituen eta egizko mezenak baloratuko dituen marko juridiko baten pemia dagoela gogoratu behar da. Gipuzkoak enpresa-sare inbidiagarria du, aberastasuna badago, eta enpresa multzo horrek askoz ere gehiago ekar zezakeen.

Plan Estrategikoan txikia eta handia hartu behar dira aintzat. Azpiegitura egokiak garatzea eskatzen du hiriak. Bestaldetik, batzar-turismora bideratutako hiri batek, gauean euskarri bat behar du, non jendea dibertituko den.

Ekintzaileei babesa, azpiegiturak eman behar zaizkie, eta kapital-hazia sortu behar da; arriku-kapitala era honetako aktibitateetarako.